

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Dolores Leunda Artola

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Tolosako Iturralde baserrian
jaioa, Santa Luzia auzoan.
Ama anoetarra zuen, eta aita,
berriz, jaiotetxe berekoa.
Gerra aurrean, Maria
Doloresek sei urte bete
zituenerako, bi tokitan
zeuden ikastolak Tolosan: bat
Gorriti plazan eta bestea
Laskurain kalean. Bera,
Laskurain kaleko ikastolan
hasi zen, beraz, ikasten. 11
urterekin, 1936an,
batxilerrean eman zuen
izena. Bere garaian ikastolako
bakarra izan zen. Neska eta
baserrikoa izanik, are
harrigarriagoa zen bere
kasua. Urte hartan gerra hasi
zen. Batxilerra 'Sagrada
Familia'-n, "Frantsesetan"
egin zuen, ikastolak ez
baitzuen batxilergoa egiteko
prestakuntzarik eskaintzen.
Valladolid-en egin zuen
batxilergoko azterketa, eta
hala atera zuen titulua.
Ondoren, magisteritza ikasi
zuen, eta gerra ondorenean
Tolosako 'Laskurain' ikastola
birsortzen aritu zenetako bat
izan zen. Irakasle lanetan
aritu zen geroztik, ikastolatik
erretiroa hartu zuen arte.

Zintak

TOL-031

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-08-05
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Ikastolan ikasi zuen Errepublika garaian

- **Erref:** TOL-031/003
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:04:09

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Tolosan gerra aurretik bi ikastola zeuden eta non zeuden azaltzen du. Berak Laskorain ikastolan ikasi zuen eta izebaren etxean bazkaltzen zuen orduan. 1936an batxilerra ikasteko apuntatu zen eta Oñatira joan zen batxilerrean sartzeko azterketa egitera. Asko gustatzen zitzaion ikastea.

2. Garai hartako batxilerra

- **Erref:** TOL-031/004
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:09. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Gerra hasi zenean, ikastola bukatu zuen. Batxilerra ikasi nahi zuenez, Sagrada Familian egin zuen batxilerra. Garai hartan 7 urtean ikasten zen batxilerra eta azterketa gogorra izaten zen bukaeran: Valladoliden izaten zen azterketa hura eta dena jokatzeko zuten han.

3. Azterketaren bezperan anaia hil

- **Erref:** TOL-031/005
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Batxilerreko azterketa egiteko bezperan, abisua eman zioten anaia hil egin zela. Familiakoak saiatu ziren azterketa egin arte berri txarra ezkutatzeko, horrela Maria Dolores lasai egon zedin; azkenean jakin egin zuen eta gogorra izan zen. Amak asko sufritu zuen, lehenengo alargun geratu zelako eta gero semea hil zitzaiolako.

4. "Kulturak jendea berdintzen du"

- **Erref:** TOL-031/006
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Lehen ez zen arrunta baserriko neskek batxillerra ikastea. Hala ere, Maria Dolores ez zen baztertua sentitu: diruaren eta odol urdinaren gainetik, kulturak jendea berdindu egiten duela dio.</p>

Transkripzioa

- Ordun emakume asko al zian batxillerra iten zuenak?
- Baserriko oso gutxi. Baserriko hemen inguruko Kaxilda ta ni. Kaxilda da ni baiño bi o hiru urte zaharragua izango da. Kaxilda ta ni. Eta kolejiyon ez, kolejiyon'e gure taldia zan haundiya ta giñan bost. Bestek iten zuen "cultura general" esaten zana. Batxiller iten gendun: beste kurso baten zian bi, batekoa'de izan zan, ta guria zan ugariya bezela, bost izan giñan. Eta, bueno, gaiña denak zian, bat abogadun alaba, bestia medikuan alaba, bestia denda inportantena. Ni nintzan, ba, "pues, la pobre caserita". Baiño behin'e ez naiz sentitu alde hortatik diskriminatua. Ta oaintxe bertan deitu dit haitako batek, lagun haundiya det. Eta nere konplejok izango nitun, baiño bueno, hoi denak ahaztuta daude zeatikan, gero azken baten, oaindikan'e batzuk badaude pentsatzen duenak odola urdiña duela beak, baiño geo ta gutxigo daude holakok. Azken baten, ba, kulturak eta horrek iten zaitu gero berdindu. Eta zuk nortasun pixkat baldin badezu, ez dezu uzten zure burua iñoiz zapaltzen. Pasau nitun e? Nere momentu txarrak pasako nitun.

5. Mojetako azterketak

- **Erref:** TOL-031/009
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:14:33. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Sagrada Familiako mojetan ikasi zuenean, aurreneko urteetan institutura joaten ziren azterketa egitera; gerora, lizentziatuak etortzen ziren eskolara azterketa egin zezaten.

6. Ikastolara joateko arrazoiak eta hizkuntzekiko filosofia

- **Erref:** TOL-031/011
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

<p>Umetan zergatik eraman zuten ikastolara aipatzen du. Hizkuntzak komunikatzeko tresna direnez, ingelesa eta gaztelania ere ikastea garrantzitsua iruditzen zaio, horrela mundura zabaltzen baikara.</p>

Transkripzioa

- Zure gurasok zek motibatu zitun, zu txikiya ziñala... Bueno, zure ama, zu ikastolan sartzea? Euskera zaletasunak...

- Bai, berentzako zan, berentzako zan, nere ama erderaz bueno juxtu-juxtu bere firma jartzen zekin, eta euskera zan basarrin euskera zan. Baiño zan baserriko euskera. Tema filosofiko bat ateratzen alperrik aiko zea zure aittonai esaten, ezta? Nei'de bai e?

- Baiño ordun ez zan pentsatzen, o beste guraso batzuk ez zuen pentsatzen "guk ez dakigu erderaz, ta gure seme-alabek ikasi dezatela", ta ordun erderazko eskola bidali ta...?

- Ez, "es que", ikastolan'e, klaro, ni iritsi nintzan hamaika urtera, baiño oain ikastolan erdera eta gero inglesa ikasten dan bezela, ordun inglesa ez zan pentsatzen, baiño erdera ikastia izango zan asignatura bezela. Pentsatzen det, harek segitu bazun. Zeaitkan erabat, erabat... Ez da logikoa erabat baztertzia erdera. Batzui hala irudituko zaie, baiño nik ez det pentsatzen. Aizu, mundun hirugarren hizkuntza da ta erdera ez dago despreziatzeik. Guk maite badegu ta guria bezela euskera ikasten badegu, askoz logikuagua da oain damakien prozesua. Ez dakit ze urte arte, lau urte arte o, euskera bakarrik ikasten due. Gero ya pixkana hasten dia erdera zeatzen. Eta ya beatzi urte daukadan illoba, ya zortzikin hasten dia inglesa, ta ideala hoi da. Aizu, mundun zabaldu in behar deu, eta beste jendekin'e tratatu in behar deu. Nik hoi daukat oandikan'e, hutsune haundiya, nik oain esango balie "'la varita mágica", ze nahi zenduke?", ba nik bat, inglesa ondo jakitia. Eta ya ez daukat harea ta honea ibiltzeko edadia. Baiño iruitzen zait personakin komunikatzeko ta mundun zabalen ibiltzeko, zu motxilakin askotan jungo zean bezela, inglesak baliyo dizula, ezta? Eta erdera'de bai. Erdera ez da despreziatu ber, nere iritzi.

7. Ikastola gerra aurrean eta gerra ostean

- **Erref:** TOL-031/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Gerra aurrean, ikastolan ikasi zuen Maria Doloresek. Gerra ostean, ordea, ikastolak ez ziren legalak eta tranpa ugari egin behar izaten zituzten ikastolak aurrera ateratzeko.</p>

Transkripzioa

- Zuek txikiyak ziñatenen'e bai, bazun ikastolak fama hoi, "euskeraz nola ikasiko due ba?" Ta...

- A! Bai. Geo bakizu zer zeon? Rezelua. Nola ez zeuden legalizatuk, eta tranpak in ber zian inspektoria etortzeko; ta Eskolapiok'e adibidez mesedia iten zuen, kartillak beak han han ikasiko balue bezela.

- Zuek txikik ziñatela?

- Ez, ez, ez, ni txiki... Ordun ez zan problemik, ordun ez zan problemik. Geo, esaten dizut, ikastolak Tolosan hasi zianian, adibidez, Eskolapiok, ba beren ikaslek balia bezela. Eta gero igual andereño titulodunik euskera ez zeon asko, eta batzuk titulua adosten zuen. Leno esan dizuten lagun honek esan

ziten hoi, utzi zun bere titulua, utzi zuen prestatzen zuen horko andereñok balia bezela. Zeatikan igual zeuden batzuk titulo gabek. "O sea" denetikan.

8. Irakasle-ikasketetatik ikastolarako bidea

- **Erref:** TOL-031/015
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:24:18. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Irakasle-ikasketak egin ostean, urte askoan ez ziren oposizioak atera. Maria Dolores, ordea, hasiera batean bulego batean hasi zen lanean. Orduan Donostiako merkataritza-eskolan ikasi zuen. Hala, mojek deitu zioten administrazioko eskolak emateko. Han zebilela, ikastolatik deitu zioten. Ikastolaren sorrera nolakoa izan zen kontatzen du.

9. Ikastolaren hasieran gurasoek izandako meritua

- **Erref:** TOL-031/016
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:20. **Bukatu:** 00:29:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolaren sorreran, gurasoek kuota ordaintzen zuten eta handik ateratzen zen irakasleen soldata. Pixkanaka, leku gehiago behar zuten, eta eraikuntza batetik bestera ibili ziren aldatzen. Lan-baldintzak pixkanaka hobetzen joan ziren. Ikastolako haurren gurasoek meritu handia izan zuten sistema hartan konfiantza jarri izanagatik.

10. Ikastolan erlijioa bai ala ez?

- **Erref:** TOL-031/019
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Ikastolan eztabaida handiak egon ziren erlijioaren inguruan: ikastolatik kanpo ala ikastolan bertan eman behar zen erlijioa? Batzuek orduan ikastola arbuiatu egin zuten.</p>

Transkripzioa

- Monjak bere seillua bazuen. Gero relijiokin ere istorik izan zian.
- Ze istori, ba?
- Bere istorik. Ba, klaro, ez zala relijiyoik emango. Ta bueno, batzuntzat, guraso batzuntzat izan zan hoi... Eztabaida haundik izan zian relijiokin'e. Eta, klaro, bestek esaten zuen ba hoi apaizak eman behar zuela; haik eman behar duela, ikastolatik kanpora.
- Ta guraso batzuk eskandalizatu bezela iten zian?
- Bai, bai, bai, bai, guraso batzuk ez zuen onartzen. Ordun, guraso batzuntzat retxazua'de izan zan...

11. Infernua eta zeruari buruzko gogoetak

- **Erref:** TOL-031/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:38:58. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

<p>Lehen fede gehiago zuen jendeak; orain, ordea, ez. Infernuari eta zeruari buruzko gogoetak egiten ditu.</p>

Transkripzioa

- Lehengo gurasok eta umek'e fede gehiyo izango zuen, ezta?
- Bai, "nos tragábamos todo. Pero yo ya no. Nos tragábamos todo". Ta gurasok ze esanik ez. Nik esaten det, nere ama ta hola, "porque no creo que existe ni el cielo ni el infierno", baiño "si existiera el limbo, suelo decir, son del limbo, de tan inocentes. del limbo". Nik ya ez det sinisten zerua donik, eta inpernua... Hemen ikusten det, telebisiyuan ikusten det. Infernua behinik behin egunero ikusten det. Oain bertan ikusten dezu Pakistanen e? Eta ordun nun dago gure jauntxo hori? "Te haces descreída".
- Ordun ez zeon, ordea, holakoik esateik, ezta?
- Ez, esateik ez. Ikusi'de ez giñuten gauza asko iten baiño... "Eso lo de los pederastas, y los curas no sé qué"...

12. Gerra Zibila gaur egungo egoeraren aldean

- **Erref:** TOL-031/025
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:43:32. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra hasi zeneko oroitzapenak kontatzen ditu: bonbak, manifestazioak, banderak… Umeentzat hori festa bezalakoa zen. Gaur egungo berriak ikusita, aldea dago hemengo gerraren eta oraingo munduko arazoaren artean.</p>

13. Inauterietako mozorroa

- **Erref:** TOL-031/029
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:50:58. **Bukatu:** 00:52:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Mojetan ikasten zuenean, arratsaldeko 7ak arte uzten zieten egoten kalean, baita inauterietan ere. Maria Dolores bere modura mozorrotzen zen orduan. Dantza egitea gustatzen zitzaien. Luto garaian ezin zen festatara joan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com